



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 23a

27. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta menpekoak diren zuzenbide publikoko entitateetan euskara erabiltzeari buruzkoa eta eremu ez-euskaldunean D ereduko hezkuntza-eskaintza aplikatzeko irizpideei buruzkoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (3. or.).
- Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan, N-121-A errepideko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzekoak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 'Diru-sarrerak bermatzeko sisteman zergakenkarien eredia ezartzeko aukerari buruzko azterlana' abiaraz dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortu ahal izateko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur intereseko ondasun deklaratu dituzten Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da abian jar dezan lantalde bat, tokiko administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko lanak koordinatuko dituen. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lehentasuna eman diezaion irakaskuntza publikoa garatzeari, hezkuntza sozializataile eta kalitatezko baten berme den aldetik. Hezkuntza Batzordeak onetsia (8. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 17an egindako bileran, erabaki zuen Foru Lege proposamena aintzat hartzea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua

indargabetzen duena. Foru Lege proposamen hori Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu zuen, eta 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta menpekoak diren zuzenbide publikoko entitateetan euskara erabiltzeari buruzkoa eta eremu ez-euskaldunean D ereduko hezkuntza-eskaintza aplikatzeko irizpideei buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 17an, erabaki du Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko honako foru lege proposamen hau aintzat ez hartzea: "Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta menpekoak diren zuzenbide publikoko entitateetan euskara erabiltzeari buruzkoa eta eremu ez-eus-

kaldunean D ereduko hezkuntza-eskaintza aplikatzeko irizpideei buruzkoa". Foru Lege proposamena 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 17an, erabaki du aintzat ez hartzea ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parla-

mentarioak aurkeztu baitzuen eta 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan, N-121-A errepideko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzekoak.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan, N-121-A errepideko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzekoak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Zenbait neurri har ditzan, bide-sareko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzera bideratuak. Hartara, aztertuko du N-121-A errepide bihurtzeko proiektuan ehizarako itxiturak paratzea eta faunarako igarobideak (ekoduktuak) eraikitzea, animalia-harrapatzeak eragindako trafikoko istripuak saihestez gain, animaliak salbatzen laguntzen baitute.

– Zehatz dezan noiz hasiko diren aurreikusita dituen egokitze-lanak”.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ‘Diru-sarrerak bermatzeko sisteman zerga-kenkarien eredua ezartzeko aukerari buruzko azterlana’ abiaraz dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ‘Diru-sarrerak bermatzeko sisteman zerga-kenkarien eredua ezartzeko aukerari buruzko azterlana’ abiaraz dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du azter dezan ea diru-sarreraren bermerako sisteman kenkari fiskalen eredua ezartzeko aukerarik dagoen, egungo erronken arabera prestazio eredua baterantz aurrera egiteko xedez”.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2030 Agendaren ezarpenean buru izan dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2030 Agendaren garapen jasagarriko helburuak eta jomugak betetzen jarrai dezan zeharkako izaeraz, eta agenda hori erakundeen mailarik gorenean koka dezan, halako moduan non Nafarroako Gobernuak lehendakaria izanen baita 2017an eratutako departamentuen arteko batzordearen burua eta Lehendakartzako Departamentua batzorde exekutiboan sar dadin, inplementazioa betetzen dela koordinatzeko eginkizunekin, zeharkako izaera hori bermatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du GJHen lorpenean buru izan dadin, gizartearen egiazko transformazioa ekarriko duten eta egungo nahiz etorkizuneko erronkei

bermeekin aurre egitea ahalbidetuko duten politika publiko aitzindariak eginez. Aitzindaritza hori oinarri, gizarte zibileko erakundeekin batera lan eginen du Nafarroako erakunde guztiek nola enpresa-, gizarte- eta toki-sareak ezagutu eta jorra ditzaten 2030 Agendaren 169 jomugak eta Nafarroa 2030 Agenda betetzearen buru jarriko duten politikak egin ditzaten.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren gara dezan, bere ekintza planean bertan jasotzen den bezala, 2030 Agendaren komunikazio eta hedapen plan bat, erabakitasunez bultzatuko duena “Jasangarritasunaren Kultura” nafarren artean. Plan horren barruan egon beharko du eraikitako Visor Web-en hedapena, herritar guztiek kontsultatu ahal izan ditzaten datuak, garapen jasagarriko helburuak betetzeari dagokionez.

– Nafarroako Parlamentuak lantalde bat sortuko du bere ibilbidearen buru izateko, era horretan 2030 Agendaren garapen jasagarriko helburu eta jomugak bete ahal izateko”.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortu ahal izateko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruzur Fiskalaren aurkako Neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkez dezan, Iruzur Fiskalaren Behatokia sortu ahal izateko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruzur fiskalaren aurkako neurriei buruzko apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igor dezan Legebiltzar honetara, sei hilabeteko epean igorri ere. Proiektuan, “Nafarroan 2006tik 2016ra bitarteko iruzur fiskalaren diagnostikoa eta ezkutuko ekonomiaren balioespena egiten duen azterlana” izenean jasotako gomendioei jarraikiz, Iruzur fiskala-

ren Behatokia eratzea jasoko da, eta hori ez da Iruzuraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko Batzordea mantentzeko eragozpen izanen; hartara, horren eginkizunak birdefinituko dira eta are Behatokiaren baitan sartuko da batzorde gisa”.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur intereseko ondasun deklaratu Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur intereseko ondasun deklaratu Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kultur intereseko ondasun deklaratu Oronozko eta Endarlatsako zentralak, uste baitu interes historiko eta artistikoa daukatela eta desagertzeko arriskuan daudela”.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da abian jar dezan lantalde bat, tokiko administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko lanak koordinatuko dituen.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, honako erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da abian jar dezan lantalde bat, tokiko administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko lanak koordinatuko dituen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen du gehienez ere hilabeteko epean departamentuen arteko eta administrazioen arteko lantalde bat abian jar dezan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren parte hartzearekin, Toki Administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko beharrezkoak diren lanak koordinatzen hasiko dena”.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lehentasuna eman diezaion irakaskuntza publikoa garatzeari, hezkuntza sozializatzaile eta kalitatezko baten berme den aldetik.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2019ko urriaren 15ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da lehentasuna eman diezaion irakaskuntza publikoa garatzeari, hezkuntza sozializatzaile eta kalitatezko baten berme den aldetik”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen hazkundea babestu dezan, guztiei hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera.

2. Ez dezan eskola-unitaterik ken ikastetxe publikoetan, baldin eta eskaria behar adinakoa bada.

3. Eskola-postu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean ikaspostu bat eskatzen duten ikasle guztiei”.

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias